

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2017ko urriaren 11, asteazkena.

2017ko azaroaren 15eko akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko. Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna da bilkuraren buru. Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bertaratu ez diren zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina arrazoitu du, eta Diana Rubio Lafuente (PP).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko irailaren 13ko ohiko bilkuraren akta.
2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
 - 5.1. EH Bildu Oion taldearen mozioa, Arabako Errioxako mamografie buruzkoa.
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea**
 - 6.1. Udal-esparruak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuaren kudeaketa agintzea INDESA 2010 SL enpresari.
 - 6.2. Arabako Foru Aldundiari eskatzea ondasun higiezinaren katastro-balioa berrikusteko.
 - 6.3. Bildu taldearen mozioa, OHZren salbuespenari buruzkoa.
 - 6.4. Behin-behinean onestea 2018ko ordenantza fiskalak aldatzea.
 - 6.5. 2016 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.
Azken puntua) Galderak eta eskeak

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko irailaren 13ko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Halaber, adierazi du 7.1 puntuan akats bat dagoela; bozketa bat gehiago gehitu da eta kendu egin behar da.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko irailaren 13ko bilkurako akta, igorritako zirriborroaren arabera eta egindako oharra aintzat hartuta.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Dekretuak eta alkatetza-ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 204/17tik 217/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

- 3. Kultura, Turismoa, Festak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
- 4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
- 5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**

5.1. EH Bildu Oion taldearen mozioa, Arabako Errioxako mamografiari buruzkoa.

Villanueva Gutiérrez jaunak EH Bildu Oion taldearen mozioa irakurri du, Araba Errioxako mamografiari buruzkoa. Dakizuen bezala, bi urtetik behin, Osakidetzak bularreko minbizia goiz detektatzeko programa jartzen du martxan; eta dagokion azterketa egiteko, Araba Errioxako emakumeek Txagorritxuraino joan behar izaten dute. EH Bildu Oion taldeak eskatzen du gai horri konponbide bat ematea eta Oyón-Oiongo emakumeak hiribururaino joan behar ez izatea, 180 kilometro eginez, proba hori egiteko. Ez genekien Osakidetzak bere betebeharrak betetzat zuenik Legebiltzarrean aurkeztu zuen dokumentu horrekin; izapide hori egin zuen eta “bularreko minbiziaren detekzio eta diagnostiko goiztiarraren planean parte-hartze handiagoa izan dezaten, mamografia-zerbitzua ospitaleetatik urrutien dauden biztanleengana hurbiltzeari buruzko” dokumentua aurkeztu zuen.

Dokumentua aztertu dugu eta ez dugu mozioa aldatuko; izan ere, dokumentuak ez du paserik. Hau da, mozioko puntu guztiak bozkatzeari nahi dugu.

Gamarra López Brea jauna: Guk ere nahi dugu emakumeak Gasteizeraino joan beharrik ez izatea, eta ia egun erdia galtzea proba hori egiteko. Eta uste genuen konponbidea zela mamografiak egiteko makina mugikor bat erabiltzea. Baina kostua oso altua denez, eta fidagarritasuna ez denez makina finkoena bezalakoa...

Konfiantzazko boto bat eman behar diegu gure osasun arloko agintariei. Pena da gai hau ekonomiaren ikuspegitik soilik lantzea. Abstenituko egingo gara.

Campos Latre jauna: EH Bildu Oion taldearen azalpena egokia iruditu zait, baina aitortu behar dut ez dudala azterketa irakurri. Abstenitu egingo naiz.

Alkate jauna: Mozioaren lehen bi puntuak, azterlan horri buruzkoak dira, eta ez du zentzurik; izan ere, azterlan hori aurkeztu da, eta beste kontu bat da hura gustatzea edo ez. Azterlanak dio Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela nahikoa emakume detektatzeko unitate horietara joateko zailtasunekin; hortaz, kopuru hori ez da nahikoa mamografiak egiteko unitate mugikor hori jasagarria izan dadin. Eta mozioaren hirugarren puntuak dio mamografiak Lezan egin ahal izatea edo unitate mugikorra alokatzea, eta hori jada proposatu da.

EH Bildu Oion taldearen mozioa bozkatu da, Arabako Errioxako mamografiari buruzkoa:

Aldeko botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Aurkako botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 2 (bi) Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Mozioa ez da onetsi.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea

6.1 Udal-esparruak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuaren kudeaketa agintzea INDESA 2010 SL enpresari.

Villanueva Gutiérrez jauna: Indesaren proposamenean akatsak daude eta badirudi ez dela inor konturatu edo ez duela inork irakurri.

Aurrekariak:

- 1) 2017ko urriko hitzarmena; horren bidez arautzen da udal-esparruak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuaren kudeaketaren agindua.
- 2) Aplikagarria da Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua.

Hau erabaki da:

- 1) INDESA 2010 SL enpresarekin hitzarmena sinatzea onestea, udal-esparruak garbitu, mantendu eta kontserbatzeko zerbitzuaren kudeaketa antolatzeko. Beste hainbaten artean, honako baldintza hauek bete beharko ditu. Prezioa 104.350 eurokoa izango da, hileroko fakturako da urteko zenbateko osoaren hamabirena, eta ez du BEZearen eraginik izango, eragiketa hori ez baitago horren menpe. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da. Agindua luzatu egin ahal izango da. Luzatzeko, bi alderdien onespena beharko da, eta, gutxienez, kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago jakinarazi beharko da.
- 2) Baldintzak, alderdi teknikoak eta agindutako lanen maiztasuna onestea. Era berean, udal-teknikariek gainbegiratuko dituzte lan horiek (agindura erantsi dira).
- 3) Eduardo Terroba Cabezón alkate-udalburuari baimena ematea hitzarmen hori formalizatu dezan.
- 4) Iragarkia jartzea ALHAOn.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

6.2. Arabako Foru Aldundiari eskatzea ondasun higiezinaren katastro-balioa berrikusteko.

Aurrekariak:

1. Arabako Foru Aldundiak Oyon-Oiongo katastro-balioak zehaztu zituen 2007ko abenduaren 4an onetsitako balioen txostenean, eta 2008an jarri ziren indarrean.
2. Hainbat baldintza ekonomikorik garbi azaltzen dute alde handia dagoela ondasun higiezinaren katastro-balioaren eta merkatuko balioaren artean.
3. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 12.1 artikulua honako hau dio: katastro-balioak Foru Aldundiak aldatuko ditu, ofizios edo Udalak eskatuta, hirigintza-plangintzak edo beste egoera batzuek erakusten dutenean desberdintasun nabarmenak daudela katastroko balioen eta udalerriri osoan edo bertako guneren batean edo gehiagotan kokatutako ondasun higiezinaren merkatuko balioen artean.
4. Foru Arauko horretako 11.8 artikulua dio hala zehaztutako katastro-balioak zortzi urtetik behin berrikusi behar direla.
5. Ekonomia eta Ogasuna Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Arabako Foru Aldundiari eskatzea dagokion organoak prozesua abiarazi dezan Oyón-Oiongo ondasun higiezinaren katastro-balioa berrikusteko, Ondasun Higiezinaren gaineko

Zergari buruzko uztailaren 19ko 42/89 Foru Arauko 11.8 eta 12.1 artikuluek xedatzen dutenaren arabera.

Aldeko botoak: 8 (zortzi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

6.3. Bildu taldearen mozioa, OHZren salbuespenari buruzkoa.

Villanueva jauna: Mozioa iaz aurkeztu zenaren antzekoa da. Eta zentzu gehiago dauka, lehen onetsitakoa aintzat hartuz gero; izan ere, katastro-balioak ez daudela orekatuta aitortzen du. Ordainagiriaren titularrari dagokion dokumentazioa aurkeztea, hobariaren baldintzak betetzen dituela frogatze aldera. Eta, nolana ere, zerga ordaintzea; ondoren itzuliko zaio dagokion zatia. Hobarien taula aspalditik proposatzen ari garena da.

Gamarra jauna: Ez daukat ezer gehitzeko.

Alkate jauna: Agurainen 0,35eko zerga mota aplikatzen da eta Oyón-Oionen 0,15ekoa. Oyón-Oionen aplikatzen den mota hori katastroaren berrikusketa egin zenetik aplikatzen da. Baldintzak ez dira aldatu aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bizilagunentzat onuragarriagoa izango da aurreko puntuan erabakitakoa, balioen txostena berrikustea, mozio hau baino.

EH Bildu Oion taldearen mozioa bozkatu da, OHZren salbuespenari buruzkoa:

Aldeko botoak: 3 (hiru); Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion)

Abstentzioa: 1 (bat); Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

6.4. Behin-behinean onestea 2018ko ordenantza fiskalak aldatzea.

Alkate jaunak gogorarazi du batzordeetan aurkeztutako ordenantza fiskalen aldaketa-proposamena.

Villanueva jauna: Ordenantza horien aldaketa guztiekin ados gaude, HHSen tasaren aldaketa-proposamenarekin izan ezik. % 16ko igoera aurreikusten da HHSetan, zaborra biltzean; gehiegizkoa da... Ezarriko den tasa Kuadrillak jasoko du, eta igoera bat zehaztu da; izan ere, Gasteizko Udalak, hondakinen instalazioa erabiltzeko tasa igo nahi du Jundizen (isurketa-kostua), 68,56tik 85 eurora, tona metriko bakoitzeko. Gainera, igoera hori oraindik ez dago indarrean.

Campos jauna: Ordenantzen aldaketa-proposamenari dagokionez, hiru gauzekin zalantzak ditut: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren erroldan milioi bat euro baino gehiago fakturatzeko dituzten enpresak sartzea, ibilgailuak salbuestea (historikoak, klasikoak eta zaharrak) eta HHSen tasa areagotzea. Azken hori agian alde batera utz dezakegu aztertu ahal izateko...

Alkate jauna: Ezin da atzeratu ordenantza fiskalen aldaketa, bestela ez lirateke indarrean sartuko 2018ko urtarrilaren 1ean. Hiri Hondakin Solidoen biltze-tasa areagotzeari dagokionez, ezin dugu besterik egin; soilik Kuadrillak jakinarazten duen igoeraren berri ematea. Guri ere ez zaigu gustatu, baina ardura-kontua da. Ezin ditugu 18.000 euro galdu zabor-bilketan.

Villanueva jauna: Ordenantzen aldaketak banaka bozkatzea eskatzen dugu.

Gamarra jauna: Gure taldeak eskatzen du ordenantzak aldatzeko bozketak bakarrik egitea.

EH Bilduren proposamena bozkatu da, ordenantzen aldaketak banaka bozkatzeari buruzkoa.

Aurkako botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aldeko botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Eskaera baztertu egin da.

Aurrekariak:

1. Ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea 2018 ekitaldirako.
2. Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauko 15. eta 16. artikulua aplikatu behar dira.
3. 2017ko urriaren 4ko Ekonomia eta Ogasuna Batzordean egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Behin-behinean onestea aipatzen diren tasak eta zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalen aldatzea. Eta gainontzeko ordenantza fiskalen indarraldia luzatzea.
- 2) Jendaurrean ikusgai jartzea uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan (Tokiko Ogasunak arautzen dituen) eta 44/1989 Foru Arauan zehazten diren modu eta epean.
- 3) Ebazpen hau behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik egon ezean. Erabakiaren behin betiko onarpena argitaratzea arauk ezarritako moduan eta epean.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Aurkako botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Villanueva jauna: Gure taldeak alde bozkatzea pentsatzen zuen, Hiri Hondakin Solidoen bilketari buruzko tasaren aldatzea izan ezik.

6.1. 2016 ekitaldiko kontu orokorra onestea.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udaleko Kontuen Batzorde Bereziak 2016 ekitaldiko kontu orokorraren aldeko irizpena eman zuen 2017ko irailaren 6ko bilkuran.
2. 2016 ekitaldiari dagokion kontu orokorraren espedientea jendaurrean ikusgai jarri zen hamabost eguneko epean udaletxeko iragarki-taulan eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (2017ko irailaren 15eko 106. zenbakian). Erreferentzia: Ogas/CtagenTramit – 2016 ekitaldia.
3. Jendaurrean ikusgai jartzeko epean ez zen erreklamaziorik, eragozpenik edo oharrik egin.
4. Kontuen Batzorde Bereziak 2017ko urriaren 4an egindako erabaki-proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2016 ekitaldiko Kontu Orokorra.
- 2) Ondasunen Inbentarioa zuzentzea, Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Araudiak 31. artikuluan xedatutakoa betez.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EH Bildu Oion).

Azken puntua) Galderak eta eskeak

Campos jauna: Javier Azkárate erretiratu da eta langile ona izan da; ez dakit asko kobratzen zuen, baina proposatu nahi dut hogeita hamar urte baino gehiago hemen lanean aritu den pertsonari detaile bat egitea.

Alkate jauna: Jakinarazten dizuet erretiratu ostean boluntarioki laguntzen ari zaiola bere lanak egiten dituen pertsonari, egunean jartzeko.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:29an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2017ko urriaren 25ean.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE